


*Nire lekuko
izango
zarete*

DOMUND 2022



Aita Santuaren Misio Ekintzak



DOMUND 2022

URRIAK 23 - DOMUND 2022

NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE

Emaiozu kartazalari

Margotzeko orri hau berezi samarra da ikus dezakezunez. Berarekin zure kartazal pertsonala egin ahalko duzu DOMUNDerako zure laguntza eman ahal izateko.

Ezer baino lehen **marrazkiak** zure gustora **margotu** behar dituzu. Egin al duzu honezkero? Orain **kartazala prestatu** beharko dugu. Aurrena moztu beharko dugu eta ondoren atzeraka tolestatu beharko ditugu alboetako bi ertzak. Ongi markatu ahal izateko, bi marrazkien artean dagoen arrastoari jarraituz tolestatu behar dugu, elkarri bizkarra eman ez gelditu arte. Berriz zabalduko dugu, ertzetan kola jarriko dugu eta haien gainean kartazalaren atzeko parte itsatsiko dugu. Prest duzu zure diru-laguntza sartu ahal izateko! Ondoren, kartazala ongi itxia uzteko, tolestatu ezazu goiko ertza, kola jarri ilundutako tartean eta ertza itsatsi ezazu.

DOMUNDerako zure **diru-laguntza** eskolara edo parrokiara **eraman** dezakezu.

Eragiozu pixka bat buruari

Badakizu **nork** esan zuen "Nire lekuko izango zarete"? **Nori** esan zion?

Zerbaiten lekuko garenean, geure esperientziatik abiatuta, hori egia dela esan dezakegu eta horrela esan dezakegu behar den tokian. Zergatik izan zaitezke zu **Jesusen lekuko**?

Misiolariak Jesusen lekuko apartak dira. Beraiei esker, haien hitzei eta ekintzei esker, jende askok Jesus ezagutu eta maita dezake. Eta zu, **noren aurrean** izan zaitezke Jesusen lekuko? Nola?

Imajinatu marrazkiaren erdian dagoen haurra zu zarela. Gai al zara burbuiloan idazteko Jesusi buruz esango zenukeena? Eta ez ahaztu guztia margotzeaz!